

BIZTANLEEN HEZIKETA-MAILAREN GARRANTZIA AZTERGAI



BA AL ZENEKIEN...

- Europak datozen 10 urtetan Lanbide Heziketako graduatu kopurua bikoiztu beharra aurreikusten duela ekonomia lehiakorra izateko?
- Debagoieneko 100 langabetuetatik 10 direla soilik Goi-mailako Lanbide Heziketako tituludunak?
- Eta aldiz, Debagoieneko 100 langabetuetatik 60k ez duela Derrigorrezko Hezkuntzaren ondorengo titulurik?

Debagoieneko Lanbide Heziketa **ZIFRATAN:**

- 7 ikastetxe
- 12 familia profesional
- 33 titulazio
- 1.100 ikasletik gora

Ale honetan Debagoieneko biztanleriaren ikasketa maila aztertuko dugu eta Europako zein Euskadi mailako datuak aurkeztu eta konparatuko ditugu.


Herrien garapenerako biztanleen ikasketa maila garrantzitsua dela jakina da eta GOIAZ! Lanbide Heziketaren Azokan partehartzen dugun erakundeon helburuetako bat biztanlegoari formazio aukerak eskaintzea denez, datu esanguratsu hauek aurkeztu nahi ditugu.

EUROPA, ESPAINIA eta EAeko TREBAKUNTZA EGITURA

Grafikoak 25 eta 64 urte bitarteko biztanleria okupatuaren egitura adierazten du, trebakuntza mailaren arabera banatuta. Argi ikusten da maila ertaineko trebakuntza falta Espainia eta EAEn, Europako mailekin konparatuta. Kualifikazio maila baxuko lan-eskuaren pisua ere azpimarratzekoa da, eta neurriak hartzeko modukoa ere bai.

2020rako egindako gaitasun beharren aurreikuspenek adierazten dute 15,6 milio lanpostu berri sortuko direla EBean, goi-mailako titulazioko pertsonentzat (5-6 Cine mailak), eta 3,7 milioi, bigarren mailako graduatuentzat (3-4 mailak; adib.). Aldiz, 12 milioi lanpostu gutxiago egongo dira kualifikazio maila baxua edota kualifikaziorik ez duten pertsonentzat.


25 ETA 64 URTE BITARTEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN PORTZENTAIA PRESTAKUNTZA MAILAREN ARABERA



LAN ESKAINTZEN TENDENTZIA 2020rako KUALIFIKAZIO MAILAREN ARABERA

Gure egoera konparatzen badugu datozen urtetarako CEDEFOP-ek 2020rako proposatzen duen kualifikazio ereduarekin (eskuman), argi ikusten da kualifikazio maila baxuko pertsonak gutxitu beharko direla eta erdi-mailako kualifikaziodunak nabarmen handitu.

Alde batetik, erritmoaren exigentzia eta bestetik eskola-uzte goiztiarreko datuak kontuan izanda, aldaketa ez da belaunaldiarteko errelebo hutsez emango.






BIZTANLEEN KUALIFIKAZIO MAILA Debagoiengan

Hurrengo grafikoan 10 urtetik gorako pertsonen kualifikazio maila aztertuko dugu, Debagoiena, Gipuzkoa eta EAEko datuak konparatuz. Oinarrizko ikasketei eta maila bajuagoko ikasketei dagokienez, Debagoienak Gipuzkoak eta EAEk baino zifra altuagoak ditu. 10 urtetik gorako poblazioaren %41,54ak oinarrizko ikasketak soilik dauzka. Lanbide Heziketako ikasketei dagokienez ere Debagoienak (%18,60) gainontzeko herrialdeek baino zifra altuagoak ditu; Gipuzkoak (%16,34) eta EAEk (%15,29) baino. Aldiz, DBH eta Batxilergo mailako ikasketetan, erdi-go mailakoetan eta goi-mailako unibertsitate ikasketetan formatutako pertsonen portzentaia Debagoiengan bajuagoa da, Gipuzkoan eta Euskadin baino.

10 urtetik gorako Biztanleriaren Ikasketa maila
Konparaketa (Debagoiena, Gipuzkoa, EAE)



Debagoieneko biztanleen %18,60ak Lanbide Heziketako ikasketak ditu, gainontzeko lurraldeek baino zifra altuagoa.

LANGABETUEN KUALIFIKAZIO MAILA Debagoiengan

Azpiko grafikoa ikusita argi dago kualifikazio mailak harreman estua duela langabezia izateko aukerekin. Debagoiengan, 2013ko otsailean 3.820 langabetu daude inskribatuta enplegu zerbitzuan. Langabetu horien %59,1ak oinarrizko ikasketak edo DBH mailararteko ikasketak dituzte. Langabetuen %18ak Batxilergo maila arteko ikasketak eta EMHZak dituzte. Goi Mailako Heziketa Zikloak dituztenak, %10,29a dira eta unibertsitate ikasketak dituztenak %11,2. Beraz, argi dago, goi-mailako ikasketek, lanbide heziketak zein unibertsitate mailakoak, lana topatzeko aukerak handiagotzen dituztela.

Lotuta doaz kualifikazioa eta lana aurkitzeko aukerak. Goi mailako ikasketek (LH edo unibertsitate mailakoek) lana topatzeko aukerak handiagotzen dituzte.

Debagoieneko langabetuen kualifikazio maila
2013ko otsaila

